



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía
Circular

Ebazpena, 2023ko uztailaren 27koa, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Mungiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2023ko apirilaren 11n, Mungiako Udalak eskabidea aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, Mungiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egin zezan, bat etorrita Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak V. eranskinean dakarren formularioa. Aipatu dekretuak planen eta programen ingurumen-ebaluazioaren prozedura arautzen du.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidetaren hasieraren berri eman zitzaion Mungiako Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horren gaineko interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumenaren arloan egoki iritzitako oharra egiteko.

Behin txostenak jasotzeko indarreko legerian ezarritako epea bukatutakoan eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismeneko dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean eragin nabarmenak izateko arriskua dakartenean; horretarako, ingurumena babesteko maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei (II.A eranskinean zerrendatuta), bai eta haien aldaketek ere, legeko edo erregelamenduzko edota Gobernu Kontseiluaren xedapen batek beharturik prestatu baldin badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera lege behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. atalean jasotako arloei buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Donostia 1 – 01010 Gasteiz

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.



Bestalde, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Lege horri aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzen du osatzeko du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean «Ingurumen-azterketa estrategikoaren edukia»– bildutako eskakizunak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan «Erreferentziako agiriaren edukia» eta «Ingurumenaren jasagarritasunari buruzko txostenaren edukia», hurrenez hurren– bildutakoak ere.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu, eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Lege Orokorra, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasagarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzeko den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Mungiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (aurrerantzean, Plana edo HAPOa) ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, eta honako baldintza hauen arabera:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena.

Mungian indarrean den hirigintza-plangintza arau subsidiarioek osatzen dute; apirilaren 16ko 4/1996 Foru Aginduaren eta ondorengo 43 alaketan bidez behin betiko onetsi dira Mungiako arau subsidiarioak (1997ko apirilaren 28ko BAO, 80. zk.)

Mungian gaur egun indarrean dagoen udalaren hirigintza-plangintza berraztertzea da Plan honen xedea, batetik, udalerrian hauteman diren beharrei eta arazoei erantzuteko (natura-ingurunea, etxebizitza, jarduera ekonomikoak, komunikazio-sistemak, gune libreak eta ekipamenduak, mugikortasun alternatiboak, azpiegiturak eta abar), eta, bestetik, gaur egungo lege-esparrura eta goragoko lurralde-plangintzara egokitzeko.

Hiri-lurzorua

Aurrerakinean proposatutako hiri-lurzorua 597 ha-ko azalera du, eta horietatik 105 ha hiri-lurzorua finkatugabearen kategoriakoak dira. Hiri-lurzorua, finkatua eta finkatugabea, udal-mugartearen azaleraren % 13,5 da.

Hiri-lurzorua finkatugabearen jarduketa hauek proposatzen dira:

1. Urbanizazioa eraberritzeko eta/edo berritzeko eremu integratuak.

Bizitegi-erabilera orokorra:

- ARRU-01. MESA: Aurrerapenak osorik aurreikusten ditu gune nagusiaren ipar-mendebaldean, Karmelo Etxegarai kalearen eta Lauaxeta Olerkari kalearen artean, kokatuta dagoen eremuari

dagokion indarreko plangintzan antolamenduari –egiturazkoa eta xehatua– buruz xedatzen direnak. Indarrean dagoen Plan Bereziaren helburua da eremu horretako hiri-bilbea iragazkortzea eta hiri-ertz hori ixtea, eta, horretarako, industria-instalazio batzuk bizitegi-garapen berri bihurtzea: 403 etxebizitza, eta horietatik 80 babes-araubideren batera bideratuko dira.

- ARRU-02. ELORDUIGOITIA (HILERRIA): Aurrerapenak eremu berean bateratzen du berrikusten diren arau subsidiarioen U-30, 31 eta 32 barne hartzen dituen jarduketa hori. Antolamendu berri bat proposatzen da horretarako, erabilera-programa ebatziko duen eta hiriaren eta ingurunearen arteko antolamendu hobea ahalbidetuko dituen eraikuntzak formalizatzean oinarrituta (hilerria izango du bereizgarri). 50 etxebizitza aurreikusten dira, eta horietatik 20 babes-araubideren batera bideratuko dira.

Jarduera ekonomikoen erabilera globala (industrial eta hirugarren sektorekoa):

- ARRU-03. PRADO: Berrikusten ari garen plangintzan definitutako SI-13 Prado garatzen duen eragiketa da, eta industria-erabileren eta hirugarren sektoreko erabileren eskaintza handia sortzea ekarriko du. Erabilera horiek lurzoru-pieza handi batean kokatuko dira (horren gainean industria-instalazio batzuk zeuden), hirigune nagusiaren iparraldean, Bermeo bidearen eta Ormaetxe bidearen artean.
2. Eremu jakin batean dagoen urbanizazioa osatzeko helburua duten jarduketa integratuak, lehendik dagoenak ez duelako barne hartzen zerbitzu-maila nahikoa eta egokia.

Bizitegi-erabilera orokorra:

- AI-AMU-13. LARRABIZKER: Jarduketa gune nagusiaren hego-ekialdeko muturrean dago, Larreta bidearen eta BI-3102 errepidearen artean. Planaren aurrerapenak arau subsidiarioen 33. aldaketatik (2013ko martxoaren 8ko BAO, 48. zk.) eta lurzoru urbanizagarriari buruzko Larrabizker Bizitegi Sektorearen Plan Partzialetik (1123/2006 Foru Agindua) eta ondorengo aldaketetatik eratorritako antolamenduko –egiturazkoa eta xehatua– zehaztapenak aurreikusten ditu eremu honetarako. Zehaztapen horiek 2012an onartutako urbanizazio-proiektuan, ondorengo aldaketetan eta 2019ko testu bateginean jasotzen dira. Eremu hori oso egikarrituta badago ere, oraindik ez da urbanizazioa jaso, eta, horregatik, aurrerapenak lurzoru horren hiri-lurzoru finkatugabearen izaerari eusten dio, urbanizazioa dela eta.
- AI-AMU-12. KAIERO: Jarduketa gune nagusiaren iparraldeko ertzean, Karmelo Etxegarai kalearen ekialdean, ingurune horretako hiri-bilbea osatzeko, 19 etxebizitza berri inguru garatuta; horretarako, eremu horretan indarrean dagoen plangintzaren zehaztapenak funtsean mantenduko dira eta antolamendu xehatua egokituko da, haren bideragarritasuna eta garapena bermatzeko.

Jarduera ekonomikoen erabilera globala (industrial eta hirugarren sektorekoa):

- AI-AMU-14. BELAKO, AI-AMU-17. LUISENE AI-6, AI-AMU-16. TROBIKA: Eremu horietan industria-erabilerak eta hirugarren sektoreko erabilerak garatzen dira, eta azpiegitura-defizitak dituzte. Aurrerapenak indarrean dagoen plangintzak ezarritako hiri-lurzoru finkatugabearen kategoriari atxikitzea aurreikusten du, harik eta urbanizazioa osatu eta/edo jaso arte. Nolanahi ere, eremu horren mugaketan doikuntzak egitea proposatzen da, lurzoruak sailkapenetik kanpo utzita, dela ingurumen-balio handiagatik (Luisene), dela kokapenagatik edo sektore-eraginagatik (Belako Atela eremua, ekialdeko muturrean).
- AI-AMU-15. ZABALONDO: Eremu hori gune nagusiaren hego-mendebaldean dago, erdigunetik 5 kilometro ingurura. Aurrerapenak, funtsean, indarrean dagoen plangintzan aurreikusitako egiturazko antolamenduko zehaztapenei eusten die. Horiek aukera ematen dute jarduera ekonomikoko polo bat eratzeke, Bilbo-Mungia autobiarri lotuta dauden industria-instalazio batzuen

presentzia antolatuta eta integratuta, eta etorkizuneko ekobulebar bat, horren inguruan hazkunde nagusiak antolatzeko eta Txorierririkiko konexioko eraldaketa-ardatz bat sortzeko, 2019ko LAGek proposatzen duten bezala.

3. Eraikita dauden eremuetan eraikigarritasuna handitzeagatik eskatzen diren zuzkidura-jarduketak.
 - AD-01. LANDET XO-BE KOA: Aurrerapenak proposatzen du, «Mungia-Derioko eraldaketa-ardatza»ri lotutako San Martin (Oleta) SUS-04an garatutako eragiketa estrategikoaren esparruan, funtzio anitzeko hiri-pieza bat garatzea, garapen berri hori udalerriko gune nagusiarekin antolatu ahal izateko. Landetxo kalearen eta Atxurizubi kalearen elkargunean dagoen lurzati baten gainean eraikuntza bat eratu nahi da, irabazizko erabilera mistoak ezarri ahal izateko, bai eta aparkaleku publikoaren erreserba bat ere, «Landetxo kalea pasealekua» proposamenean kendu nahi diren plazak hartzeko.

Hiri-lurzoru finkatuan, aurrerapenak proposamen hau egiten du:

- AI-AMU-01. LANDET XO KALEA BULEBARRA: Proposamenaren helburua da Landetxo kalean dagoen espazio publikoa eraldatzea, irizpide hartuta birnaturalizatzea eta trafiko motorizatuko ibilgailuentzako galtzadarako gordetako espazioa murriztea. Kale horren ekialdeko muturrean dagoen aparkaleku publikoko poltsa –Lauaxeta Olerkaria kaletik du sarbidea– kentzea planteatzen da, eta lorategi-espazio handi bihurtzea, plaza-bulebar gisa, jarduketaren mendebaldeko muturrarekin antolatu ahal izateko Olentzeroren etxerako sarbidearen inguruan. Aparkaleku-plazen murrizketa «konpentsatu» egiten da AD-01 Landetxo-Bekoa zuzkidura-jarduketako proposamenarekin.
- AI-AMU-02. LA BILBAÍNA: Monte Berriaga urbanizazioa 320 ha-ko eremua da, eta nukleo nagusiaren hegoaldetik 5 kilometro ingurura dago. Golf-zelai bat dago, eta familia bakarreko etxebizitzak baino ez daude bertan. Urbanizazioa hobetzeko eremu bat proposatzen da, zerbitzuak ezarriko dituen, bereziki uraren ziklo integralekoak.
- Industria-lurzoruko jarduketak: hiri-lurzoru finkatuko esku-hartzeak dira, urbanizazioa hobetzera bideratuak eta, printzipio orokor gisa, espazio horiek birnaturalizatzea dute, bai eta espazio publikoaren irisgarritasunerako eta funtzionaltasunerako estrategia berri bat ere.

Lurzoru urbanizagarria

Aurrerapenak lurzoru urbanizagarri gisa 34,6 ha inguruko azalera identifikatzen du (horietatik 2,9 ha espazio libreen sistema orokorretarako erabiltzen dira); hau da, hiri-lurzoruaren azaleraren % 6 baino gutxiago.

Lurzoru urbanizagarrian, urbanizazio berriko jarduketa integratuko eremu hauek definitzen dira:

Bizitegi-erabilera orokorra:

- SUS-01. GARRAKETA: Eremua hirigunearen iparraldean dago, Elorduigoitia kalearen eta Berteiz kalearen artean. Indarrean dauden arau subsidiarioetan aurreikusitako sektorea murriztu egin da, Butroe ibaiaren uholde-arriskugarritasunari buruzko azterketen eraginpeko lursailak bertatik kanpo uzteko. Haren garapena bizitegi-erabilera globala duen plan partzial baten bidez ezartzen da: hasiera batean, 80 etxebizitzako eskaintza garatu ahal izango litzateke, eta horietatik 60 babes-araubideren baten mende egongo lirateke.
- SUS-02. LORADI: Mugaketa doitu egin da hego-ekialdeko muturrean, jada eraikita dauden katastro-partzelen zati bat baztertzeko, eta antolamendu xehatua egiteko baldintzak aldatu dira. Guztira 594 etxebizitza egitea proposatzen da, eta horietatik 450 babes-araubideren baten mende egongo

dira. Indarrean dauden arau subsidiarioek jada proposatzen zuten horiek garatzea. Plan partzial baten bidez garatuko da.

- SUS-05. LARRAURI: Eremu horretarako, aldaketak proposatzen dira aurreikusitako antolamendu xehatuan, bai eta sektoreari lotutako eraikuntza-intentsitatean ere, indarrean dauden arau subsidiarioetan proposatutako garapenari dagokionez. Larrauriko erdigunean garatzen da, eta antolamendu intentsiboagoa planteatzen da, familia anitzeko tipologiaren garapenean oinarrituta, babes-araubideren baten mendeko etxebizitza-erreserba hobeto integratzeko eta lurzoru publiko gehiago libratzeko. Guztira 40 etxebizitza proposatzen dira, eta horietatik 30 babes-araubideren baten mendekoak izango dira.
- SUS-03. SARRI: Hiri-lurzoruan txertatutako hutsunea da, Larrabizker (hegoaldean) eta Errementeri (iparraldean) eremuen artean. 126 etxebizitza aurreikusten dira, eta horietatik 95 babes-araubideren baten mendekoak izango dira.
- SUS-04. SAN MARTIN (OLETA): Mungiako hiri-lurzoruaren hegoaldeko ertzean eremu hori garatzea da planaren aurrerapenaren helburu nagusi eta estrategikoetako bat. Eragiketa honen eraikuntza-edukia eremuaren mendebaldeko muturrean aurreikusita dagoen geltoki intermodal berriaren inguruan biltzen da, eta aukera ematen du gainerako lurzoru espazio libreen sistemara bideratzeko. Sektore hori garatzeak aukera emango du, halaber, hegoaldeko hiri-ingurabide berri bat eratzeke; hartara, hiriguneko kale gehienak trafikotik libratzeko eta oinezkoentzako, egoteko, jolasteko, eta abarrerako beste espazio batzuk jartzeko. Guztira, 634 etxebizitza garatzea proposatzen da, eta horietatik 467 babes-araubideren baten mendekoak izango dira.

Jarduera ekonomikoen erabilera globala:

- SUS-06. ATXURI: eremu hori hirigune nagusiaren ipar-mendebaldean, industria-erabilerak garatzen diren hiri-lurzoru gisa sailkatutako eremuen artean egituratzen da, Karmelo Etxegarai kalearen gainean. Lurzoru urbanizagarriko sektore berri horrek –indarreko plangintzan, lurzoru urbanizaezinean kokatuta dago– aukera emango du zentralitate-polo bat eratzeke, Mungiako eremu funtzionaleko LPPko xedapenekin bat etorritik; horrek eremu horretarako berariazko bateragarritze-eremu bat ezartzen du, Atxuri-Billela jarduera ekonomikoetarako eremu gisa.

Azpiegiturak eta ekipamenduak

Aurrerapenak azpiegitura eta ekipamendu berriak planteatzen ditu inguruan eta hiri-bilbearen barruan: ekobulebar metropolitarra eratzea, geltoki intermodal berria eta hegoaldeko hiri-ingurabide berria kokatzea; mugikortasun jasangarriko komunikazio-sare berri bat eratzea, disuasio-aparkalekuak eta bidegorrien trazadura berriak jarrita. Gainera, hiri-kualifikaziorako funtzio anitzeko ekipamenduen pieza berrien kokapen selektiboa proposatzen du.

Lurzoru urbanizaezina

Hasierako dokumentu estrategikoak eta aurrerapenak lurzoru urbanizaezinaren antolamendu-kategoriak definitzen dituzte:

- Babes berezia: LAGen arabera, Mungiako udal-eremuan kategoria honi atxikitzen zaizkio: Jata eta Sollube sakana, Arritabane- Jata-San Miguel-Tallu-Linebaso iparraldeko mendilerroa, Unbe-Berreaga-Gamizmendi hegoaldeko mendilerroa, Butroe ibaiko hezeguneak (LPPko ibai-eremuak eta Hezeguneen LPSko inbentarioa).
- Ingurumen-hobekuntza: adierazten da kategoria horrek funtsezko balioa izan behar duela lurzoru urbanizaezina eraldatzeko, naturan oinarritutako konponbideak edo paisaia- edo nekazaritza-hobekuntzak sortzeko euskarri gisa. Kategoria honetan kokagune hauek sartzen dira: Madariagaetxebarri, Trobika eta Arritugane.

- Basoa: baso-erabilerarako lursailak dira. Bi azpikategoria planteatzen dira: basoa eta mendi mehatza. Ez daude barne landazabala osatzen duten basoak, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerekin konbinatu eta txandakatu baitaitezke.
- Nekazaritza eta basozaintza eta landazabala: «Balio estrategiko handia»n (gaitasun agrologiko handiagoa duten lurzorua edo sektorerako ustategi estrategikoak) eta «Trantsizioko landa paisaia»n banatzen da, nekazaritza eta basozaintzako LPSak ezarritako baldintzetan.
- Gainazaleko uren babesa: ibai eta errekek eta haien babes-eremuak, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren arabera.
- Landa-nukleoak: Larrauri, Mungiako hirigunearen ipar-ekialdean.

Era berean, aurrerapenak lurzoru urbanizaezinen antolamendu-kategoriei gainjarritako baldintzatzaile hauek jasotzen ditu:

- Uholde-eremuak: Mungiako Butroe ibaiaren eta haren ibaiadarren 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremua.
- Azpiegitura berdea: lurreko habitaten lotura naturala sustatzen duten elementuek osatzen dute; Sollube-Garbolako amildegiak, bisoi europarraren interes bereziko eremua, paisaia-intereseko zenbait eremu eta ibai-sistemak, nekazaritza eta basozaintzako LPSko baso-bilbea, eta abar.

Kontuan hartutako aukerak

HAPOaren aurrerapenak 2 aukera planteatzen ditu, 0 aukeraz gain (ez esku hartzea):

- 0. aukera: Indarrean dagoen hirigintza-plangintza orokorrari eustea dakar; hau da, Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioei –apirilaren 16ko 4/1996 Foru Aginduaren bidez onartu ziren behin betiko (Ebazpena 1997ko apirilaren 28ko BAO-n argitaratu zen)– eta onartu zirenetik 25 urte pasatxotan egindako 44 aldaketei eustea.
- 1. aukera: Aukera horrek 2014an hasierako onarpenera lortu zuen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren dokumentuari berriro heldzea dakar, izapidetzean egindako txosten sektorialen ondoriozko aldaketekin, behin betiko onarpenera lortu ahal izateko.
- 2. aukera: Indarrean dagoen plangintza orokorra berrikustean datza, 2019ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek eta Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendak proposatutako agertokiaren ondoriozko helburu juridikoak, hirigintzakoak eta ingurumenekoak betetzeko, baita klima-aldaketaren, hiri-jasangarritasunaren irizpideen eta gizarte-kohesioaren erronkak ere.

2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasuneko printzipioak eta irizpideak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Gainera, kontuan hartu beharko dira urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak (211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legean (abenduaren 9ko 10/2021 Legea) ezarritako helburuak eta printzipioak, bai eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Legean (azaroaren 25eko 9/2021 Legea) zehaztutako helburuak eta printzipioak ere.

Era berean, kontuan hartuko dira planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek zuzenduko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsiboki erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Funtsezko prozesu ekologikoek eta oinarritzko bizi-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzea, eta ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak babestea.
- e) Natura-ekosistemen kontserbazio-egoera ona babestea, bai eta ondare geologikoaren eta paisaiaren barietatea, berezitasuna eta edertasuna ere.
- f) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoratztea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabide horren erabilera jasangarria ere.
- h) Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- i) Hauek sustatzea: energia aurrezteak, energia berriztagarrien efizientzia eta erabilera eta kogenerazioa.
- j) Aire garbia bermatzea, eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea.
- k) Klima-aldaketak eragindako kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta aldaketara egokitzeko neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak minimizatzea.
- m) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduera indartuz.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen-gune garrantzitsuak

HAPOaren lurralde-eremua Mungiako udal-mugarte osoa da, eta 52,12 km²-ko azalera du. Udalerrria Mungialdea eskualdean dago, eta honako udalerri hauekin egiten du muga: Bakio eta Bermeo (iparraldean), Gatika eta Maruri-Jatabe (mendebaldean), Meñaka eta Gamiz-Fika (ekialdean), eta Derio, Loiu eta Zamudio (hegoaldean). Udalerrriaren baldintzatzaile eta balio nagusiak honako hauek dira:

- Udalerrriaren ipar-ekialdeko muturrean, Sollube-Garbolako amildegiak EAEko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo irekian sartuta daude. Eremu horretan daude Infernu, Eizaga eta Azega erreken goiko tarteak, guztiak ere Estepona ibaiaren arroari dagozkionak. Kokaleku horien interesa ubide unbrofiloek osatzen duten habitat berezian datza. Ur ez oso mineralizatuak daude, eta flora errelikta paleotropikaleko espezieak eta anfibio endemiko iberiarraren espezie bat (*Rana iberica*) daude bertan.
- EAEko hezeguneen inbentarioaren arabera, udalerrian «Butroe ibaiko hezeguneak» daude; horiek Butroe ibaiaren haraneko natura- eta paisaia-balio handieneko uholde-belardiak hartzen dituzte. Gainera, udalerrriaren hegoaldean, Laukariz (Oleta) eta Berriaga urtegiak eta Egotaldeko urmaela daude.

- Udalerrria ez dator bat gune babestuekin, ezta EAEko Korridore Ekologikoen Sareko elementuekin ere. Ez dago onura publikoko mendirik, ez eta interes geologikoko lekurik ere.
- Mungia sare hidrografikoa Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan dago. Udalerrriaren azalera osoa Butroeren unitate hidrografikoari dagokio, hegoaldeko muturra izan ezik; hori Ibaizabalen unitate hidrografikoari dagokio. Butroeren unitate hidrografikoaren barruan, udalerrriaren zatirik handienak Butroe-A eta Butroe-B azaleko ur-masetara isurtzen ditu urak, eta, iparraldera, Estepona-A masaren arroak bakarrik. Udalerrriaren hegoaldeko muga, azalera txiki batean, Ibaizabalen unitate hidrografikoko Asua ibaiaren arroa sartzen da. Butroe ibaiak –ibai-ibilgu nagusia da– udalerrria zeharkatzen du ekialdetik mendebaldera. Ibaizabal ibaia udalerrriaren iparraldeko mugatik igarotzen da. Butroe ibaia –udalerririko ibai-ibilgu nagusia da– ekialdetik mendebalderantz doa, herrigunea zeharkatuz. Halaber, udalerrriaren erdi-hegoaldeko, Butroeren zenbait ibaiadar igarotzen dira: Larrauri, Laukariz, Amentzakarreta, Markaida, Ereañotzaga, San Martin, Oleta, Trobika, Zarratu, etab. Iparraldeko udal-mugatik Estepona ibaia igarotzen da mendebalderantz. Udalerrriaren iparraldean, Esteponaren zenbait ibaiadar daude: Emerando, Zumetzaga, Zubitxueta, Larragan, Zarraga, Otsategi eta Sarretxo.
- EAEko ibaiertzak eta errekaertzak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren arabera (isurialde kantauriarra), osagai hidraulikoa kontuan hartuta, udalerririko hiriguneraino doan Butroe ibaiaren tarteak 50 eta 100 km² arteko arro-azalera du (II. maila) eta hirigunea zeharkatu eta hainbat ibaiadarretatik urak jaso ondoren, udalerritik igarotzen den azken zatian, III. mailakotzat jotzen da, hau da, 100 eta 200 km² arteko arro-azalera du. Oleta ibaiak, udalerritik igarotzean, 50-10 km²-ko arro-azalera du (I. maila). Estepona ibaia eta haren ibaiadar batzuk (Emerando), bai eta Butroerenak ere (Amentzakarreta, Larrauri, San Martin, Oletako goiko zatia) 0. mailakoak dira, 10 eta 1 km² arteko arro-azalera dute. Gainerako ur-ibilguak 00 mailakotzat jotzen dira; 1 km² baino gutxiagoko arroak dira. Gainera, ingurumen-osagaiaren arabera, Butroe ibaian ondo kontserbatutako landaredia duten ertzak, lehentasunezko natura-intereseko eremua eta lehengoratzeko beharra duten ertzak daude.
- Mungia lurpeko bi ur-masaren gainean dago: Iparraldeko Antiklinorioa, udalerrriaren iparraldeko erdiarekin bat datorrena, eta Bizkaiko Sinklinorioa, hegoaldeko erdia hartzen duena. Bizkaiko Sinklinorioko masaren Getxo-Bergara sektore kuaternarioa –hirigunearen zati handi bat horren gainean dago– eta Iparraldeko Antiklinorioko masaren Jata-Sollube eta Jata-Meñaka sektore kuaternarioak interes hidrogeologikoko kokaleku gisa identifikatzen dira.
- Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroari dagokionez, Butroe ibaiaren arro osoa «mantenugai-ekarpenarekiko sentikorrek diren eremuen bilketa-gune» gisa identifikatuta dago. Era berean, Butroe-A eta Estepona-A ur-masak «hornidura-bilketak dituzten masak» dira.
- Balio estrategiko handiko lurzoruak, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera, ibai-ibilguen alboetan daude bereziki, bai eta hirigunetik gertu egonik malda txikia duten guneeetan ere; 1.056 hektarea hartzen dituzte guztira, udalerririko azaleraren % 20 baino gehiago, hain justu.
- Intereseko landarediari dagokionez, udalerrrian Batasunaren intereseko habitat hauek kartografiatzen dira: *Ranunculus fluitantis* eta *Callitriche-Batrachion* landaredia duten estai muinotar eta menditarreko ibaiak (3260), txilardi lehor europarrak (4030), txilardi oromediterraneo endemikoak, otaberarekin (4090), belardi lehor erdinaturalak eta kare-substratuen gaineko sastrakadiak (6210), altitude txikiko sega-belardi pobreak (6510), *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen baso alubialak (91E0*), *Quercus robur* eta *Quercus pirenaica* espezieen baso galaiko-portugesak (9230) eta *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* espezieen basoak (9340). Halaber, nabarmentzekoa da beste habitat autoktono bat dagoela, nagusiki *Quercus robur* espezieko zuhaitzak dituen baso azidofiloa, hain zuzen ere.

- Udalerriko ibai-ibilguak bisoi europarrarentzako interes bereziko eremu gisa katalogatuta daude. Animalia hori galzorian dagoen espezie gisa ageri da Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan. Ildo horretatik, kontuan hartu behar da *ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretua, Bisoi Europarraren — Mustela lutreola (Linnaeus, 1761)— Kudeaketa Plana onetsi zuena, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea baita eta babesteko neurri bereziak behar baititu.*
- Paisaiari dagokionez, udalerrriaren zatirik handiena Mungiaren ikus-eremuari dagokio. Hala ere, ipar-ekialdean Meñakako, Bakioko eta Mañuako arroak daude, eta hegoaldeko mugaren azalera oso txiki bat Lezamaren arroarekin bat dator. Arro horiek arruntak edo oso arruntak dira, eta paisaia-balio oso txikia dute; beraz, ez dira sartzen EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoaren Katalogo Irekian.
- Udalerrian, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzati inbentarioan jasotako 148 kokaleku identifikatu dira guztira; industria-jarduera aktiboak edo ez-aktiboak, betelanak edo zaborteak dituzten lurzoruak dira.
- Butroe ibaiaren ertzetan dauden Mungiako hiriguneko hirigintza-garapen batzuek uholde-arriskua dute, eta 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborek eragiten diete. Butroe ibaia, Mungiako herrigunetik igarotzean, bai eta haren Oleta eta Sarria ibaiadarrak ere, ES017-BIZ-BUT-03 Mungia uholde-arrisku handiko eremuaren barruan daude (I. taldea). Era berean, udalerrriaren mendebaldeko muturrean dagoen Butroe ibaiaren azken zatia ES017-BIZ-BUT-03 Gatika uholde-arrisku handiko eremuaren barruan dago (IV. taldea).
- Oro har, udalerriak kalteberatasun txikia edo oso txikia du, edota ez du akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasun nabarmenik, eta ez da identifikatzen kalteberatasun handi edo oso handiko gunerik.
- Rusle ereduaren arabera, ia udalerrri osoa higadura txiki-txikiko eta lurzoruaren galera onargarria duten eremuei dagokie; hala ere, Berreaga-Mendiko urbanizazio-inguruan larritasun handiko eta muturreko higadura-prozesuak dituzten zenbait eremu daude.
- Mungian kultura-ondarearen intereseko hainbat elementu daude, batzuk kultura-ondasuntzat aitortuak, beste batzuk tokiko intereseko ondasuntzat aitortuak. Proposatutako garapen-eremu batzuk elementu horien leku berean daude puntu jakin batzuetan.
- Udalerriri eragiten dioten zarata-foku nagusiak bide-azpiegiturak dira, bereziki BI-631, BI-2120, BI-2121 errepideak, bai eta jarduera industrialak ere. Horrela, udalerrriaren zati bat aipatutako errepideen zortasun akustikoko eremuaren eraginpean dago. Udalerriko zarata-maparen arabera (2013), hiriguneko maila akustikoak, oro har, 65-60 dB(A) azpitik daude eguneko eta arratsaldeko aldietan; gaueko aldian, mailak ez dira 55 dB(A) baino handiagoak. Gainera, testuinguru horretan, udalerriko zonakatze akustikoa eta babes akustiko bereziko eremuen (BABE) proposamena egin dira.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak

Ingurune fisikoan ondorio nabarmenak dituzten jarduketak egiteko, desegokitza jo beharko dira aurreko atalean jasotako ingurumen- eta/edo kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremu guztiak.

Era berean, printzipioz, desegokiak izan daitezke uholde-arriskuko eta/edo hots-kutsadurak eragindako eremuetako hirigintza-garapen berriak.

HAPOak planteatzen dituen proposamenen arabera, garapenaren xede diren eremu batzuek uholde-arriskua dute. Nolanahi ere, Planak jasotzen duen erabilera-proposamenak bateragarria izan beharko du honako arau hauetan ezartzen diren mugekin: Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduen 9.

artikulua (849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa); eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiaren plan hidrologikoa berrikusteko araudiaren (urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onartua) 40. artikulutik 42.era artekoak.

Halaber, eragin akustikoa duten eremuek, oro har, hots-kutsadurari buruzko araudia bete beharko dute, bai eta EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 13/2012 Dekretua ere. Etorkizunean ezin izango da egin hirigintza-garapenik kanpoaldeko kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuetan, hargatik eragotzi gabe aipatutako Dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa.

Hirigintza-garapen berriei heldu ahal izateko, naturaren, kulturaren eta ingurumen-arriskuaren ikuspegitik aipagarriak ez diren guneak lehenetsi beharko dira, hala nola lurzoru antropizatuak eta lurzoru kutsatuak.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian laburbiltzen da zein diren izapide honetan jasotako txostenen ingurumen-alderdi garrantzitsuenak: ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulta:

Natura-ondareari dagokionez:

- Ingurumen-azterketak jasoko du Plana zenbateraino egokitzen den ezarritako jasangarritasun-irizpideetara. Gutxienez, adierazle hauek aztertuko dira: haien egungo balioa, ingurumen-helburuak betetzat emateko lortu behar den balioa eta proposatutako plangintza aplikatzeak ekarriko duen balioaren kalkulua adierazita:
 - Habitat naturalek, erdi-naturelek eta naturalduet hartzen duten azaleraren ehunekoa.
 - Udal-plangintzak babesten duen azalera (Babes Berezikotako kategoriak eta Gainazaleko Uren Babesa).
 - Artifizializatutako azaleraren ehunekoa azalera osoaren aldean.
 - Biztanle kopurua hiri-lurzoruaren hektareako.
 - Azalera artifiziala, biztanleko.
 - Hiri-berrikuntzako esparruetan eta lurzoru urbanizagarrian kokatzen diren etxebizitza berrien guztizko kopurua.
 - Garraio-azpiegituren dentsitatea.
- Planaren irismenari dagokionez, honako alderdi hauetan sakondu beharko litzateke:
 - Ez dago Mungian identifikatutako bizitegi-premien eta jarduera ekonomikoen xehetasuneko azterketa bat, datu zehatzetan oinarrituta, garapen-eremuen ondorengo proposamena oinarritzeko eta justifikatzeko. Mungiako lurzoru urbanizagarrien proposamenak azalera zabal bati eragiten dio (35 ha inguru). Horrek okupazio garrantzitsua dakar eta, gutxienez, behar bezala justifikatu beharko da, jasangarritasun-irizpideak kontuan hartuta.
 - Argitu beharreko beste gai bat da HAPOan soilik aipatzen diren proposamen jakin batzuen irismena; natura-ondarean eragin handia izan dezakete horiek. Hori da San Martin (Oleta) SUS-04 berriaren inguruan aipatutako «hegoaldeko ingurabide» posible baten kasua: HAPOaren eragiketa estrategiko gisa planteatzen da eta Mungiako hirigunearen hegoaldeko zerrenda osoan bizitegi-garapena proposatzen du. HAPOaren ondorengo faseetan esku hartzeko proposamenak argi eta garbi definitzea eskatzen da, idazten den ingurumen-azterketa estrategikoak (IAE) baloratu ahal izan ditzan.
- Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari dagokionez, HAPOaren proposamena berrikusi behar da honako alderdi hauetan:

- Babes bereziaren kategoriak, LAGek ezarritakoari jarraikiz –HAPOak berak jasotzen du haien definizioa–, natura-ondarearen ikuspegitik baliozkoak diren eta mugaketatik kanpo utzi diren elementuak hartu beharko lituzke. Hori da baso autoktonoen eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitaten kasua. Horiek kategoria horretan identifikatzea eta integratzea eskatzen da, haien babesa bermatzeko, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen, 92/43/EEE Zuzentarauaren edo Habitategi buruzko Zuzentarauaren, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen eta LAGen arabera.
- Gainera, babes bereziaren kategoriarako, HAPOari lotutako informazio grafikoa zuzendu beharko da; izan ere, gainjartzeak daude kategoria horren eta basoaren kategoriaren artean, jasotako dokumentuetan eta GISekin bateragarria den formatuan txertatutako irudietan ikus daitekeen bezala.
- Lurrazaleko uren babesaren kategoriari dagokionez, jasotako dokumentazio grafikoa ez da behar bezain zehatza, eta gainjartze-arazoak ditu; hori dela eta, ezin da argi identifikatu zer eremu sartuko diren kategoria horretan. Gutxienez plangintza hidrologikoan ezarritako zortasun-eremuak sartu beharko lirateke, ibaiertzak lehengoratzeko eta Mungiako ibai-ibilguen funtzionaltasun ekologikoa birgaitzeko neurriak hartzeko oinarri gisa.
- Ingurumena hobetzearen kategoriari dagokionez, gomendatzen da flora exotiko inbaditzailea bereziki dagoen udalerriko eremuak bertan sartzea, erauzketa- eta kontrol-neurri espezifikoak hartzeko oinarri gisa.
- Gainjarritako baldintzatzaileei dagokienez, uste da osatu egin behar direla, gutxienez bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*) interes bereziko eremuak diren ibai-ibilguak sartzeko, horietan espeziearentzat onartutako kudeaketa-plana aplikatu behar bada.
- Halaber, gomendatzen da babes berezi edo gainjarritako baldintzatzaile gisa kategorizatzea tokiko eremuko konektagarritasun ekologikoko sare bat, lotura-intereseko paisaiaren elementuak jasoko dituen, hala nola heskaiak eta ezpondak, zuhaitz autoktonoen oin bakartuak, zuhaitz-lerroak sinpleak, ur-guneak (zubiak, iturburuak, istilak, etab.) eta harrizko hormatxoak; bat etorrita apirilaren 15eko 1/2014 Legegintza Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena) xedatutakoarekin.
- Aurrerapenean proposatutako lurzoru urbanizagarriei dagokienez, bereziki kezkarriak dira honako hauek, eta eskatzen da berriki daitezela eta, nolahi ere, idazten den IAEak xehetasunez azter ditzala izan ditzaketen inpaktuak eta, horren arabera, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak ezar ditzala.
 - SUS-01 Garraketa, Butroe ibaiaren mugakide dena. Mugaketa berrikustea eskatzen da edo, bestela, ibaiaren inguruko espazio libreen zerrenda bat ezartzea, hura ekologikoki leheneratu ahal izateko.
 - SUS-02 Loradi, bisoiaren interes bereziko eremua den ibai-ibilgu baten mugakide dena. SUS-01en baldintza beretan berrikustea eskatzen da.
 - SUS-04 San Martin (Oleta): natura-ondarearen gaineko eraginari dagokionez, arazorik handiena ekar dezakeen eremua da; izan ere, azalera handia hartzen du, eta bisoi europarraren interes bereziko eremuak diren hainbat ibai eta erreka oztopatzen ditu. Gainera, aurretik aipatu den bezala, gutxi definitutako esku-hartzeak egin beharko lirateke, eta ezin da baloratu esku-hartze horiek egokiak diren edo natura-ondarean izan dezaketen eragina, hala nola hegoaldeko ingurabidea edo Artekarri ibai-ibilguaren

integrazioa. SUS-04ari lotutako lursailak birsailkatzeko beharra birplanteatzea eskatzen da, eta hura mugatzea, eta, nolanahi ere, horri lotutako esku-hartzeek natura-ondarean eragin nabarmenik ez dutela sortzen bermatzea.

- Beste alde batetik, ingurumen-azterketa estrategikoak plangintza-aukera bakoitzaren egungo egoera, etorkizuneko egoera eta balizko eragina deskribatu beharko lituzke:
 - Ur-ibilgu, erribera eta ibaiertz guztiei buruz, ibai-lurraldearen babeste aldera, hori dinamika hidrogeomorfologikoa kontserbatzeko edo berreskuratzeko adinako hedadura eta jarraitutasuna duen espazio gisa ulertuta; egoera ekologiko ona betetzea; uholdeak modu naturalean ijetzea; ibai-paisaia hobetzea eta sendotzea, eta ibaiertzeko korridore jarraitua lortzea.
 - Udalerriko eremu naturalen arteko konektibitateari dagokionez, basoko espezieen eta habitaten zatikatzeari aurre egiteko, eta koherentzia ekologikoa handitzeko.

Balio agrologiko handiko lurzoruetako eragin posibleei dagokienez:

- Ahal den neurrian, azalerari eta ekoizpen-baldintzei eustea sustatu behar da, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerarekin jarraitzeko oinarri gisa, etorkizuneko nekazaritza baten premisa gisa.
- Eskatzen da SIGPACen datuak erabiltzea (poligonoa, lurzatia, barrutia) zehazteko zer lurzoru birkalifikatu nahi diren aurkeztuko diren aukeretan.
- 193/2012 Dekretuak, urriaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-lurra kontserbatzeko eta lur horren erabilpena sustatzeko buruzkoak, 5. artikuluan adierazten du balio agrologiko handiko lurrei eragiten dien edozein administrazio-jarduerak kalte-ordainen proposamen bat izango duela, galduko diren nekazaritza-lursailengatik, nekazaritza-lurren funtsen alde.

Proposatzen da har daitezela neurri gehigarriak nekazaritza-jarduera sustatzeko eta hobetzeko, balio estrategiko handiko lurzoruen galera orekatzeko, narriatutako eremuak berroneratuz, azpiegiturak hobetuz, eta Nekazaritza Lurren Funtsari lurzoru publikoak utziz.

Jabari publiko hidraulikoa eta hari lotutako babes-eremuak babesteari dagokionez:

- Hirigintza-araudi orokorrean jaso beharko da ibilguen mugakide diren obrek jabari publiko hidraulikoaren zortasun-eremua (5 m) pasatzeko libre eta oztoporik gabe utzi behar dutela, eta lursail naturala aldatzeko esku-hartzerik egin gabe, eta jabari publiko hidraulikoari eragiten dion edo haren babes-eremuetan (zortasuna eta zaintza) dagoen jarduketa orok Uraren Euskal Agentziaren nahitaezko administrazio-baimena beharko duela.
- Gainera, ibilguen mugakide diren garapen-eremuen hirigintza-fitxetan, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzen Lurralde Plan Sektorialaren F atalean eraikuntzarako eta urbanizaziorako ezarritako gutxienezko atzerapenetan, baldintza gisa sartu beharko da baldintza naturalak eta horiei lotutako ibaiertzeko landaredia babestea eta kontserbatzea, edo, hala badagokio, baldintza horiek berreskuratzea.

Uholde-arriskuari buruz:

- Plangintzak hirigintza-araudi orokorrean eta hirigintza-fitxetan sartu beharko ditu Plan Hidrologikoan aurreikusitako uholdeetatik babesteko neurri ez-egiturazkoak, arauemaileak, uholde-arriskuko eremuetako erabilaren mugei dagokienez. EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzen Lurraldearen Arloko Planeko E.2 ataleko zehaztapenak ere kontuan hartu beharko ditu.

- SUS.04 San Martin eremuan proposatutako tokiko ekipamendua eta SUS.01 Garraketa sektorean aurreikusitako aparkalekua ez lirateke bateragarriak izango Plan Hidrologikoaren araudian xedatutakoarekin.
- Uholde-arriskuko eremuan aurreikusitako hirigintza-garapenei dagokienez (eremu hauek: SUS-04 San Martin, SUS.01 Garraketa, SUS-02 Loradi, ARRU-3 Prado, AD.01-Landetxo, OMRU.1 Geltokiko pasealekua eta kirol-zentro / funtzio anitzeko zentro berria), aipatutako eremuen hirigintza-fitxetan xehetasunezko azterketa hidrauliko bat egiteko beharra berariaz aipatu behar da, justifikatzeko proposatutako garapenek, batetik, bat egiten dutela Plan Hidrologikoaren araudiarekin eta UAKParekin eta, bestetik, ez dutela pertsonen edo ondasunen segurtasunean kalteberatasuna handitzen uholdeen aurrean edo horien ondorioz, eta ez dutela ingurunearen uholde-arriskua nabarmen handitzen. Azterlan hori antolamendu xehatuaren esparruan egin beharko da edo, halakorik ezean, nahitaezko baimenean, eta Uraren Euskal Agentziari igorri beharko zaio, baliozkotu eta ontzat eman dezan.
- Bidegorri-zati berrietan aurreikusitako zubiak eraikitzerakoan, zubiak diseinatzeko berariazko arauak hartu beharko dira kontuan (Plan Hidrologikoaren 47. artikulua).
- O.01, O.2.1, O.2.2 eta O.04 antolamendu-planoetan, lehentasunezko fluxu-eremua eta 100 urteko errepikatze-denborako uraldietarako uholde-arriskua duen eremua mugatu beharko dira.

Drainatze jasangarriko hiri-sistemei dagokienez:

Hirigintza-garapen berriek behar-beharrezkoa diren azaleretara mugatu beharko dute zoladura edo okupazio iragazgaitza, eta drainatze jasangarriko sistemak erabili beharko dituzte (zoladura iragazkorrak, andelak edo ekaitzetarako gailuak eta abarrak); lehendik zegoen egoeraren aldean jariatzea handitzen bada, hori konpentsa daitekeela edo garrantzirik gabekoa dela bermatuko dute horien bitartez. Sortutako jariatze-uren tratamendua aurreikusi beharko dute, halaber.

Eremu Babestuen Erregistroari dagokionez:

EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren C.3 epigrafean ezarritakoaren arabera, plangintzak bere zehaztapenen artean jaso beharko du Inpernuko erreka hiri-hornidurarako ur-bilketa, baita dagokion babes-eremua ere, dagokion dokumentazio kartografikoan grafikoki definituta. Halaber, dokumentazio idatzian eta kartografikoan ingurumen-intereseko tarteak jasotzeko eskatzen da.

Bestalde, Butroe ibaiko hezeguneei dagokienez, katalogatuta eta Eremu Babestuen Erregistroan sartuta ez badaude ere, haien ingurumen-, natura- eta/edo paisaia-balioak kontuan hartuta, proposatzen da Plan Orokorren berrikuspenak eremu horietarako babesa eta haien ingurunearen erabileren araubidea ezartzea, eta, horretarako, Hezeguneei LPSan definitutako antolamendu-kategoriak esleitzea.

e) Kultura-ondareari dagokionez:

- Oro har, egokitzen jotzen da kultura-ondarea irizpide aurreratuarekin tratatzea.
- «Sortzen ari den ondare arkeologikoa»ren babesa aplikatzeko irizpideak eraikinen potentzialera hobeto egokitzea gomendatzen da azterketa mota horretarako. Sakonera estratigrafikoa duten eraikinetan aplikatu beharko litzateke; hau da, gutxienez mende bat baino gehiago duten eraikinetan.

- Halaber, babes etnologikoari buruzko atala osatu beharko litzateke, zerrenda justifikatzen duten irizpideei dagokienez, eta, batez ere, babes hori behar duten elementurik ez izateari dagokionez – horiek ere arautu beharko lirateke–.
- 3. mailaren izena aldatzea gomendatzen da. 3. mailakoaren ordeez, oinarritzko babes. Tokiko babes, higiezin-multzo hori eta haren babes-araubidea argi eta garbi bereiz daitezzen 6/2019 Legean oinarritzko babesekotzat definitutako higiezinetatik, kontzeptu desberdinei baitagozkie.

Babes zibileko arriskuei dagokienez:

- Mungian, Butroe ibaiaren ibilbidea eta Larrauri, Trobika eta Oleta (Atxuri) haren ibaiadarrak identifikatu dira, 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremu eta lehentasunezko fluxu-eremu gisa. Udalerriaren mendebaldean, landa-lurzoruan, ES017-BIZ-BUT-02 uholde-arrisku handiko eremuak zertxobait eragiten dio. GATIKA. Mungiako hirigune nagusian, ES017-BIZ-BUT-03 MUNGIA uholde-arrisku handiko eremua dago, 1. taldean sailkatuta, uholde-arriskuagatik eta eraginagatik.

HAPOaren aurrerapen-dokumentuan uholde-arriskuko eremuen eraginpeko eremuetako jarduketak kokatzen dira, hiri-lurzoruan zein lurzoru urbanizagarrian:

- Hiri-lurzoruan: ARRU-01 MESA, ARRU-03 Prado, AD-01 Landetxo Bekoa eta AI-AMU-01 Landetxo kalea pasealekua.
- Lurzoru urbanizagarrian: SUS-01 Garraketa, SUS-02 Loradi eta SUS-04 San Martin.

Jabari publiko hidraulikoaren ukipenei, haiekin lotutako babes-eremuei eta uholde-arriskuko eremuei dagokienez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan eta EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean xedatutakoa bete beharko da; edonola ere, ahaleginak egin behar dira aztergai dugun eremuan uholde-arriskua ez areagotzeko, eta instalazioak 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua duten kotetatik gorago jarri beharko dira. Era berean, dagokion ur-administrazioaren aginduzko baimenean jasotako baldintzak ere bete beharko dira.

Bestalde, kontuan hartu behar da EAEko Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralaren Eusko Jaurlaritzaren azterketa plubiometrikoaren arabera (1992), azterketaren xede-esparruko prezipitazio-isomaximak 325-450 mm/egun direla 500 urteko errepikatze-denborarako. Horrek berekin dakar egin beharreko obretatik erator daitezkeen drainatze-obren diseinuak aintzat hartu beharko dituela dagozkien itzulketa-ibilguekin lotutako prezipitazioak.

- Arrisku sismikoari dagokionez, udalerria IV. eta V. intentsitate-eremuetan dago, 2006ko iraileko Arrisku Sismikorako Larrialdi Planaren arabera. Beraz, udalerriak ez du Larrialdi Sismikorako Planik egin behar.
- Udalerriko eremu batzuetan, basoan suteak izateko arriskua handia da. Hirigintza-plangintzari begira, kontuan hartu behar dira Baso-Suteetako Arriskuaren aurrean Larrialdietako Babes Zibila antolatzen duen Oinarritzko Jarraibidean, Ministro Kontseiluak 2013ko azaroaren 15ean onartu zuenean, jasotako mugak eta baldintzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetan jasotakoak. Eranskin horietako lehenengoa baso-suterako arrisku handia duten inguruak edo hiria eta basoa batzen dituzten eremuak erabiltzeko Autobabeserako Plana nahitaez egiteari buruzkoak da, eta bigarrena, kanpaldietarako instalazioari buruzkoa.
- Mungian, salgai arriskutsuak ibil daitezkeen bideak BI-631 autobia eta BI-634 eta BI-2120 errepideak dira, eta oso arrisku kartografiko txikia dute. Nolanahi ere, larrialdien kudeaketa

optimoa egiteko, egokia iruditzen zaigu komunikazio-bideetan egiten diren aldaketetan kontuan hartzea larrialdietako ibilgailuen (suhiltzaileak, sanitarioak, etab.) zirkulazioa errazteko ekimen guztiak.

Zaratari dagokionez:

- Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren arabera, hirigintza-plangintzak berak adierazten dituen aginduak bermatu behar ditu. Beraz, toki-administrazioen eskumenei dagokionez (6. artikuluan jasota daude), haiei dagokie udalerrriaren lurralde-eremuaren barruko eremu akustikoak mugatzea eta onartzea, kontuan hartuta, gainera, zonakatze akustiko hori plangintzan –egiturazkoa eta xehatua– egin beharko dela.
- Lehendik dauden eremuek eta etorkizuneko hirigintza-garapenek kanpoko espazioan kalitate akustikoko helburuak (KAH) zenbateraino betetzen dituzten ebaluatu ahal izateko (31. artikuluan daude jasota), bide-azpiegitura foralekin lotutako zarata-mapa estrategikoak eta zortasun akustikoko eremuak (ZSA) erantsi beharko zaizkio dokumentuari. Azpiegitura eta Lurralde Garapen Departamentuak egindakoak dira, eta irailaren 9ko 2052/2022 Foru Aginduaren eta irailaren 18ko 4523/2013 Foru Aginduaren bidez onartuak.
- Era berean, etorkizunean hirigintza-garapenak izango dituzten eremuei dagokionez, 37. artikuluan arabera, garapen horiei eragin akustikoari buruzko ikerketa erantsi beharko zaie dagozkien hirigintza-izapideetan. Ikerketa horiek eremuak jasango duen eragin akustikoa aurreikusten duten zarata-mapak eta ebaluazio akustikoak barne hartu beharko dituzte, bai eta, beharrezkoa izanez gero, lurzorua garapenek ordaindu beharreko KAHak lortzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak ere.

Mugikortasunari dagokionez:

- Plangintza-tresna berriak barne hartu beharko ditu goragoko mailako beste plangintza-tresna batzuetan aurreikusitako jarduketa guztiak, hala nola Mungia Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialean aurreikusitakoak. Horri dagokionez, BI-631 errepidearen mendebaldean eta iparraldean, Belako eta Atxuriko industrialdeen ondoan, planteatutako aparkaleku multimodalak nabarmendu behar dira. HAPOaren aurreikuspenetan sartu beharko dira.
- HAPOak bere O.05 planoan (Mugikortasuna) jasotzen du lurralde-maila gisa irudikatuta. LPS proposamena: indarrean dagoen LPSan aurreikusitako Mungia-Bermeo korridore berriko bide-ubidea. HAPNn sartutako trazadura «Mungia Bermeo tarte egiteko Lurralde Ekintzako Plan»ean definitutakoarekin eta 2011ko maiatzaren 10ean Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak behin betiko onartutako Ingurumen Ebaluazioko Azterlanean definitutakoarekin alderatu beharko da.
- Bizikleta-mugikortasunaren barruan, Mungia udal-mugarteak Bizkaiko Bizikleta Bideen LPSko bigarren mailako sareko azpiegiturak ditu (BAO, 2023ko apirilaren 5a). «Txorierri-Mungialdea L2 ardatza»ren parte dira. Azpiegitura horren zati bat jada gauzatuta dago. HAPOak LPS horri erreferentzia egiten badio ere Memoriaren 9.14 atalean, dokumentazio grafikoan sartu beharko da, eta plana berariaz aipatu.
- Plangintza-tresna berriak mugikortasun jasangarriari buruzko azterlan bat jaso beharko du, BFAko Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko maiatzaren 11ko txostenean ezarritakoaren arabera. Azterlan horretan, HAPO berrian proposatutako agertoki desberdinetarako zona-banaketa matrizea eman beharko da, bai egungo egoeran, bai etorkizuneko agertokietan, eta horietan sartuko dira, hurrenez hurren, udalerrian aurreikusitako garapen berriak. Aurreikusitako lurzorua erabilera berriekin zona-banaketa matrizea lortu ondoren, plan berriak banaketa modalaren matrizea barne hartu beharko du. Bertan, sortutako

bidaia berriak garraiobideen artean nola banatzen diren ikusi ahal izango da: ibilgailu pribatua, garraio publikoa, bizikleta, oinez, etab.

6. Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterketa) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoaren arabera, garatzen diren atalek honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-aukerak
2. Ingurumen-ezaugarrien zehaztapena
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla-eta, uste da Azterketak hurrengo alderdietan sakondu behar duela, jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik osatzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzearen ondoriozko etorkizuneko ekintzetatik zeintzuk dakarten ingurumenean efektu kaltegarriak izateko arriskua. Hori guztia, honako atal hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketak barne hartuko du Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat. Gainera, Azterketak labur-labur jaso beharko du nola hartu diren kontuan, Plana prestatu bitartean, Ebazpen honetako 2. atalean jaso diren ingurumena babesteko helburuak eta jasagarritasun-printzipioak eta -irizpideak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Adierazi beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian Planaren gainetik dauden plan edo programen onespren-egintzek, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiei ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin zaien ala ez.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian Planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita Plana gauzatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da; halaber, zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren zehaztuko da, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako araudia eta plan hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Mungiako eremu funtzionalaren lurralde-plan partziala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021); bereziki uholde-arriskuko zonei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2022-2027 bigarren plangintza-zikloko UAKParen aurreikuspenak ere kontuan hartuta, gaur egun izapidetzen ari dena).
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Nekazaritza eta Basoak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Bizkaiko Errepideen II. Lurralde Plan Sektoriala.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko buruzkoa; 23. eta 31.4 artikulak.
- Foru aldundiaren ekainaren 19ko 118/2006 FORU DEKRETUA. Horren bidez, Bisoi Europarraren, *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) Kudeaketa Plana onetsi da, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea den eta babesteko neurri bereziak behar diren aldetik.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu behar du. Azterketak Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat garatuko du, eta haiek lotura izan beharko dute Planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak aintzat hartuta.

Indarrean dagoen plangintzaren aldean, antolamendua aldatzen den esparru/sektore guztietarako, datu hauek eman beharko dira:

- Planoan kokatzea.
- Azalera.
- Indarrean dagoen plangintzaren eta planak sartutako proposamen berrien arteko alderaketa: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea edo beste ekintza batzuk.
- Nabarmen kaltetu daitezkeen eremuen ingurumen-ezaugarriak.

Informazio hori argi eta garbi identifikatu beharko da, eta, horretarako, ekarpen kartografiko batean oinarritzea gomendatzen da, islatutako informaziora egokitutako eskala batean.

Ildo horretan, argi eta garbi definitu behar da HAPOan soilik aipatzen diren eta natura-ondarean eragin garrantzitsuak izan ditzaketen proposamen jakin batzuen irismena. Hori da San Martin (Oleta) SUS-04 berriaren inguruan aipatutako «hegoaldeko ingurabide» posible baten kasua: HAPOaren eragiketa estrategiko gisa planteatzen da eta Mungiako hirigunearen hegoaldeko zerrenda osoan bizitegi-garapena proposatzen du.

Bestalde, lurzoru urbanizaezina antolatzeko proposamena definitu beharko da. Antolamendu-kategoriak eta gainjarritako baldintzatzailak mugatu eta definitu beharko dira, bai eta horietako bakoitzean esleitutako erabilera-araubidea ere.

Ildo horretan, babes bereziaren kategoriak baso autoktonoak eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak hartu beharko lituzke, haien babesa bermatzeko, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen, 92/43/EEE Zuzentarauaren edo Habitategi buruzko Zuzentarauaren, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen eta LAGen arabera.

Gainera, iradokitzen da Babes Berezi edo gainjarritako baldintzatzaila gisa kategorizatzea tokiko eremuko konektagarritasun ekologikoko sare bat, lotura-intereseko paisaiaren elementuak jasoko dituen, hala nola heskaiak eta ezpondak, zuhaitz autoktonoen oin bakartuak, zuhaitz-lerroak sinpleak, ur-guneak (zubiak, iturburuak, istilak, etab.) eta harrizko hormatxoak; bat etorrita apirilaren 15eko 1/2014 Legegintza Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, xedatutakoarekin.

Era berean, gomendatzen da ingurumena hobetzearen kategorian flora exotiko inbaditzailea bereziki dagoen udalerriko eremuak sartzea, erauzketa- eta kontrol-neurri espezifikoak hartzeko oinarri gisa.

Bestalde, HAPOari lotutako informazio grafikoa zuzendu beharko da. Zehazki, «babes berezia» eta «basoa» kategorien artean dauden gainjartzeak zuzendu beharko dira. Lurrazaleko uren babesaren kategoriari dagokionez, jasotako dokumentazio grafikoa ez da behar bezain zehatza, eta gainjartze-arazoak ditu; hori dela eta, ezin da argi identifikatu zer eremu sartuko diren kategorian horretan. Beraz, plangintza hidrologikoan ezarritako zortasun-eremuak sartu beharko dira gutxienez, ibaiertzak lehengoratzeko eta Mungiako ibai-ibilguen funtzionaltasun ekologikoa birgaitzeko neurriak hartzeko oinarri gisa.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan izaerari buruzko aurreikuspen bat egingo da.

Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko ditu Azterketak, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean ahalik eta kalte gutxien sortzeko gidalerroak ezartzeko.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienetik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo ataletan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, bai eta Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, garapen-tresna edo -proiektu horiei ingurumen-ebaluazioa egin dakiekeela aurreikusi beharko da.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko atalean azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera eta Planean ingurumen-efektu nabarmenak ekartzeko arriskua dakarten aurreikuspen eta jarduketak adierazi beharko dira. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez honako hauek jasoko dituen: eremuaren mugaketa eta jarduketa guztien kokapena, PDF (geo-erreferentziatuta) eta *shape* formatuetan.

6.1.3. Plangintza-aukerak

a. Azaletik deskribatuko dira Plana emateko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak. Aukera horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta honako hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoak, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 aukera –esku ez hartzeko aukera– ere hartuko da kontuan, erreferentziatutak hauxe hartuta: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izango duten bilakaera probablea Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b atalean deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c atalean deskribatutako ekintzen artean.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-aukerak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako aukera.

Alde horretatik, xehetasunez aztertu beharko dira Mungian identifikatutako bizitegi-premiak eta jarduera ekonomikoak, datu zehatzetan oinarrituta, garapen-eremuaren ondorengo proposamena oinarritzeko eta justifikatzeko. Mungiako lurzoru urbanizagarrien proposamenak azalera zabala bati eragiten dio (35 ha inguru). Horrek okupazio garrantzitsua dakar eta, gutxienez, behar bezala justifikatu beharko da, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren 2023ko maiatzaren 23ko txostenean jasotako jasangarritasun-irizpideak kontuan hartuta.

Aurrerapenean proposatutako lurzoru urbanizagarriei dagokienez, bereziki kezkarriak dira honako hauek, eta eskatzen da berriak daitezela eta, nolanahi ere, idazten den IAEak xehetasunez azter ditzala izan ditzaketen inaktuak eta, horren arabera, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak ezar ditzala:

- SUS-01 Garraketa, Butroe ibaiaren mugakide dena. Mugaketa berrikustea eskatzen da edo, bestela, ibaiaren inguruko espazio libreen zerrenda bat ezartzea, hura ekologikoki leheneratu ahal izateko.
- SUS-02 Loradi, bisoiaren interes bereziko eremua den ibai-ibilgu baten mugakide dena. SUS-01en baldintza beretan berrikustea eskatzen da.
- SUS-04 San Martin (Oleta): natura-ondarearen gaineko eraginari dagokionez, arazorik handiena ekar dezakeen eremua da; izan ere, azalera handia hartzen du, eta bisoi europarraren interes bereziko eremuak diren hainbat ibai eta erreka oztokatzen ditu. Gainera, gutxi definitutako esku-hartzeak

egin beharko lirateke, eta ezin da baloratu esku-hartze horiek egokiak diren edo natura-ondarean izan dezaketen eragina, hala nola hegoaldeko ingurabidea edo Artekabarri ibai-ibilguaren integrazioa. SUS-04ari lotutako lursailak birsailkatzeko beharra birplanteatzea eskatzen da, eta hura mugatzea, eta, nolanahi ere, horri lotutako esku-hartzeek natura-ondarean eragin nabarmenik ez dutela sortzen bermatzea.

d. Aztertutako aukerak modu kartografikoan jasoko dira.

6.2. Ingurumen-egoeraren zehaztapena

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den ingurumenaren egoera –alderdi nagusiak azalduta– Planaren eragin-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren gaur egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren eragin-eremutzat hartuko da, antolamendu-eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena (Planaren ekintzek ingurumen-efektu garrantzitsuak pairatzeko arriskuan diren gunek bakarrik hartuta).

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, datuak zer iturritatik jaso diren adieraziko da, bai eta zer izenburu duten, zer urtetakoak diren eta egilea zein den ere, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak bilduko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, ur-masak eta -puntuak, klima-faktoreak eta lurzoru-mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, arriskupeko fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko lekuak, korridore ekologikoak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, bai eta interes-mailari, urrakortasunari eta gaur egungo presioei eta arriskuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotzeko arriskua ote duten adieraziko da.

Horri dagokionez, aukeratutako garapen-aukerak zer landaredi eragingo dion deskribatu beharko da, bereziki tokiko zuhaitz-masak eta intereseko landareak dituzten eremuetan. Landaredi mota bakoitzerako, honako hauek zehaztuko dira: azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionalitate ekologikoa. Halaber, eremuan dauden landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

c. Paisaia. Pertzepzio-ikuspuntutik intereseko elementurik den aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren urrakortasuna, arrisku geoteknikoak, klima-alaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku. Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Iturri kutsagarriak eta jarduera kutsagarriak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena. Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuko gunek identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Atzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, babes-tresna eta babes-maila adieraziko dira. Horrez gain, aipatu egin beharko da zein arau-xedapenek ematen dion kalifikazioa eta babesa kultura-ondasunari.

Alde horretatik, kultura-ondasunen babesa zehazteko, kontuan izango dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ezarritako irizpideak, ebazpen honen 5. atalean jasotakoak.

f. Atal honetan, gainera, beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira; hala nola, mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia eta abar), biztanleguneak (halakorik bada), ukituta gerta daitekeen biztanleria eta abar.

Horri dagokionez, kontuan hartu beharko dira Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiak egindako oharra, ebazpen honen 5. atalean jasotakoak.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko atalean azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketaren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira Planean jasota dauden jarduketaren ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak detektatu beharko ditu, proposamenak horietara egokitzeko.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahulak edo kalteberak eta abar ebaluatzeko. Atal hau idazteko, ebazpen honen 3. atalean aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Kasu horretan, Planak planteatzen dituen jarduketaren garapena baldintzatzeko arriskua dakarten alderdiak jabari publiko hidraulikoaren eta kultura-ondarearen babesarekin, uholde-arriskuarekin, lurzoru kutsatuen kudeaketarekin, kalitate akustikoarekin eta intereseko landaredi eta faunaren presentziarekin lotutakoak dira, eta alderdi horiek azterketan aztertuko dira.

6.3. Proposatutako planaren ingurumen-efektuak

a. Atal honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen Planean bilduriko ekintzek 6.2 atalean deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta karakterizatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer-nolako elkarreragina dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragina izateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta agian zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu ere.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako efektuak dauden, honako hauek bereizita: bigarren mailako efektuak, metatze-efektuak, efektu sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako efektuak, efektu iraunkorrak eta aldi baterako efektuak.

Azterketaren 6.1.2.c atalean identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta espresuki aipatuko da atal horretan ekintzei esleitutako kodea.

Azterketak bereziki jorratu beharko ditu jarduketa-proposamen berriei eta Planak indarrean dagoen antolamenduan eragin dituen aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketaren eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren efektu metatzaile eta sinergikoak.

Hala dagokionean, zehaztu egingo da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen izaerako edozein efektu bereiziko da, baldin eta biztanleriarengan, giza osasunean edo ondasun materialetan ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo ataletan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauen analisia jorratuko da:

- Bereziki, ibai-ibilgukiko eragin posiblea eta jabari publiko hidraulikoaren zortasun-eremuaren gaineko eragina ebaluatuko dira, eta arlo horretako araudia betetzen dela justifikatuko da. Planteatutako proposamenen eta, besteak beste, indarrean dagoen Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan, 2022-2027 aldirako Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean eta EAeko Ibai eta Erreken LPSan ezarritako zehaztapenen arteko bateragarritasuna justifikatuko da. Zehazki, eremu hauetan egindako planteamenduen egoera hidraulikoa aztertuko da: SUS-04 San Martin, SUS.01 Garraketa, SUS-02 Loradi, ARRU-3 Prado, AD.01-Landetxo, OMRU.1 Geltokiko pasealekua, kirol-zentro / funtzio anitzeko zentro berria, eta SUS.01 Garraketa sektorean aurreikusitako aparkalekua.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertuko du Planak zer eragin izan ditzakeen uholde-arriskuari dagokionez, eta behar bezala justifikatu beharko da indarreko plan hidrologikoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokionez (40. eta 41. artikulak).
- Horrez gain, aztertuko da bateragarria ote den honako plan hau Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko 2015-2021 Planean (kontuan hartuta, halaber, 2022-2027 bigarren plangintza-zikloko UAKPan aurreikusitakoa, zeina izapidetze prozesuan baita) ES017-BIZ-BUT-02 Gatika eta ES017-BIZ-BUT-03 Mungia UAHeetarako aurreikusitakoarekin.
- Era berean, Planak proposatutako antolamenduak eremuan dagoen landaredi autoktonoan dituen ondorioen ezaugarriak zehaztu eta baloratuko dira; bereziki hostotsuen masa autoktonoan eta identifikatutako intereseko landaredian dituenak.
- Azterketan balioztatu beharko da proposatutako jarduerak bat ote datozen tokiko konektagarritasun ekologiko lortzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuarekin bat etorritik. Bereziki, kontuan hartuko da txosten honen 3. atalean aipatutako biodibertsitaterako garrantzi handiena duten naturaguneen (naturagune babestuak, natura-intereseko eremuak, ur-ibilguak, landaredi autoktonoa duten eremuak, etab.) arteko lotura. Lotura-intereseko paisaiaren elementuen bidez lotuko dira; honako hauekin besteak beste: heskaiak eta ezpondak, zuhaitz autoktonoen oin bakartuak, zuhaitz-lerroak sinpleak, ur-guneak (zubiak, iturburuak, putzuak, etab.) eta harrizko hormatxoak.
- Garapen-eremuek ur-ibilgu, erribera eta ibaiertz guztien gainean izan dezaketen eragina aztertuko da, ibai-lurraldearen babesa lortze aldera, hau da, dinamika hidrogeomorfologikoa kontserbatzeko edo berreskuratzeko adinako hedadura eta jarraitutasuna duen espazio gisa ulertuta; egoera ekologiko ona betetzeko; uholdeak modu naturalean ijazteko; ibai-paisaia hobetu eta sendotzeko, eta ibaiertzeko korridore jarraitua lortzeko. Plan Orokorraren berrikuspenak Butroe ibaiko hezeguneen babesa eta horien inguruko erabilaren araubidea ezartzea proposatzen da eta, horretarako, Hezeguneen LAPeen definitutako antolamendu-kategoriak esleitzea.

- Intereseko faunaren gaineko eragina ebaluatuko da, bereziki bisoi europarrarena (*Mustela lutreola*).
- Eta balio agrologiko altuko lurzoruen ukipenak ere aztertuko dira.
- Indusketetatik eta lur-mugimenduetatik eratorritakoak, bereziki, kutsatuta egon daitezkeen lekuak inbentariatuta dituzten eremuetan egiten direnean.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan betetzen diren urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak (213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa). HAPOko eremuaren zonakatze akustikoa egin beharko da, dekretu horren 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako eremu akustikoak aintzat hartuz, eta zonakatze hori erakusten duen plano txertatu beharko da hirigintzako dokumentuetan. Gainera, eremu akustiko baten barruan etorkizuneko hirigintza-garapen bat aurreikusten bada (hirigintza-kalifikazioaren aldaketak barne), eta planak eremu horien antolamendu xehatua jasotzen badu, soinu-iturrien analisi bat egin beharko da, 20 urterako funtzionamendu-kondizioak barne, bai eta diseinu-aukeren azterketa bat eta, hala badagokio, KAHak lortzeko behar diren neurrien proposamen bat ere.
- Azterketaren bidez analizatu egingo da Plana bateragarria ote den identifikatutako ondare- eta kultura-intereseko elementuen izendapenaren ondoriozko babes-irizpideekin, baldin eta elementu horietan kalterik sortzeko arriskua badago.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Eftueten larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitezkeen eremuaren balioa eta urrakortasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - . Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - . Aurkako ingurumen-baldintzarik badagoen, airearen, uraren edo lurzoruen kalitate-estandarrak edo muga-balioak gainditzea eragin dezakeenik.
 - . Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak kuantifikatuko dira, eta, horretarako, Planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-ondorioen egoera-aldaketei buruzko datu neurgarriak erabiliko dira. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen efektu horien iragarpenean.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira eta, orobat, saiaturiko da lotzen plan edo programaren gerta litezkeen faseekin.

d. Adieraziko da ea hautemandako efektu horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hala deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta horien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Atal honetan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi den Azterketaren 6.3 atalean deskribatutako ingurumen-eragin kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Natura-baliabideak, natura- eta kultura-

ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea izango dute helburu.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta Azterketaren 6.3 atalean identifikatutako efektuekin –prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin– lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Ur-ingurunea babesteko neurriak: obra-fasean, lurrazaleko eta lurpeko uren kalitatea ez murrizteko neurriak proposatuko dira, kontuan hartuta Butroe ibaia eta haren adarrek hirigunea zeharkatzen dutela; Ibilgu horiek interes bereziko eremutat jotzen dira bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*).
- Berariazko neurriak, natura-ondarea eta konektagarritasun ekologikoa zaintzeko interes berezia duten udalerriko eremuak babestekoak.

Hala badagokio, neurri prebentibo, zuzentzaile eta/edo konpentsatzaile espezifikoak proposatu beharko dira, intereseko landarediaren gaineko eragina saihesteko edo arintzeko eta natura-ondarearen galera garbirik ez dagoela ziurtatzeko (zero balantzea edo, bestela, aurreikusitako lehengoratzeekin, positiboa).

- Neurri gehigarriak, nekazaritza-jarduera sustatzeko eta hobetzeko, balio estrategiko handiko lurzorua galera orekatzeko, narriatutako eremuak berroneratuz, azpiegiturak hobetuz eta/edo Nekazaritza Lurren Funtzari lurzoru publikoak utziz.
- Irizpideak zehaztuko dira planaren ondoriozko hirigintza-garapenak paisaian integratzeko; horretarako, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko azalerak ezarriko dira, eta kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburuan* jasotako gomendio eta neurriak. Alde horretatik, landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak, hala nola *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana*, eta abar. Era berean, neurriak hartuko dira espezie horien hedapena deuseztatzeko eta saihesteko.
- Oro har, bermatu beharko da betetzen dela EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean (2015-2021) ezarritakoa. Hartara, saihestu beharko dira, bai ibaien ertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoa laguntzen duten elementuena, eta sustatuko da, ahal denean, horiek lehengoratzeko, biziberritzea eta hobetzea.
- Uholde-arriskuari dagokionez, Planak indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudia bete beharko du, uholde-arriskuko zaintza-eremuko erabileren mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua), bai eta EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren araudia ere (E.2 atala).
 - Aurreko egoerari dagokion balioarekiko jariatze-uraren balizko igoera konpentsatu ahal izango dela edo garrantzirik gabekoa izango dela bermatzeko neurriak planteatu beharko dira; era berean, sortutako jariatze-uren tratamendu jasangarria aurreikusi beharko da (zolidura iragazkorra, ekaitz-depositu edo -gailuak erabiltzea, etab.).
- Kalitate akustikoaren helburuak betetzeko behar diren neurriak ezarriko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta aurreikusitako erabilerak kontuan hartuta.
- Planaren eremuan dauden lurzoru kutsatuak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera: *Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legea* eta *209/2019 Dekretua*, *abenduaren 26koa, ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duena*.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaiaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera.

- Azkenik, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketan egon daitekeen eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua. *Udalsarea 21 lan-koaderno*a eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*.

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarri edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, horiek gainbegiratzear arduratuko den agentea edo pertsona adierazteaz gainera.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat egingo du eta, bertan, Plana aplikatzeak dituen efektuak gainbegiratzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izango da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen efektu kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzeko.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-efektuak aztertzea, aurreikusi gabeko efektu kaltegarriak azkar identifikatzeko ez ezik, efektu horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek Azterketaren 6.4 atalean jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriei jarraitu beharko diete.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren Azterketan, baita zer proposamen zehatz egiten den kasu bakoitzean datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruz.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 atalean ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean efektu nabarmenak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- eta/edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela efektu nabarmen horiek gertatzeko, eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori laburbiltzeko, Azterketaren gainerako ataletan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, zeinak ebaluazio-prozesuan jorratutako gaitako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko baitu.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioaren eta kontsultaren izapideak

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioei dagokienez, organo sustatzaileak jendurrean jarriko du programaren hasierako bertsioa, bai eta ingurumen-azterketa estrategikoa ere, 45 egunez gutxienez.

Era berean, organo sustatzaileak, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gutxienez, irismeneko dokumentu hau egiteko kontsulta egin zaien administrazio publiko ukituen eta interesdunen eskura jarriko du Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter dezaten. Hauek izan dira kontsulta egin zaien erakundeak:

- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
- Ihobe.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia.
- Eguzkizaleak Elkartea (Eguzki).
- Ekologistak Martxan Bizkaia.
- Ancora elkartea.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organismoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena. Ebazpen hau Mungiako Udalari jakinaraztea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 27a

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria

Aitor Aldasoro Iturbe

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea

(Otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren bidez /

Por Disposición Adicional Primera del Decreto 68/2021 de 23 de febrero)